

**Bihotz garbia ezar nitan,
Eta funtsezko xede azkarrak har ditzadan.
Zure begitik, ez ni haiza,
Ez, izpiritu saindua kenduz, huts bihotza.**

**Pitz berriz nitan zure boza;
Zerurateko gogo zabalak bete neza.
Gaixtoak ditut argituko,
Bekatoreak zu ganat dire itzuliko.**

Urrikal zaiten nitaz... Izrael da hor barkamendu galdez ari, Babiloniako desterrutik itzuli ondoan. Bainan zer bekatu egin du ? Bekatu horri erraiten zaio idolatria. Erran nahi baita zorionaren iturria ez dela Jainkoa baitan bilatzen bainan Jainkotik kanpo. Profetek bekatu hori zenbatetan ez dute salatu!

Idolatria, gure izpiritua itsutzera uztea da, bere helbideez beterik, Jainkoarentzat lekurik utzi gabe, zorionaren iturri bakarra Jainkoa delarik bizkitartean ! Jeremi profetak ez zuena idazten : « *Nor dute ofentsatzen ? Ni ala beren buruak ?* » (Jr 7, 19). Alabainan Jainkotik baztertuz guharen malurra dugu egiten.

Bihoberritzea Jainkoak berak ardietsi behar dauku. Hori diogu salmo huntan galdatzen : « *Garbi nezazu..Zure begitik, ez ni haiza...Ez, Izpiritu Saindua kenduz, huts bihotza...Pitz berriz nitan zure boza...* »

Bigarren irakurgaia

(Kristoren obedientzia, salbabide)

Hebrearri epixtolatik 5, 7-9

- 7** Kristo Jaunak,
bere giza biziko egunetan
deiadar handiz eta nigarrez egin zion otoitz eta galde
heriotzetik salba zezakeen Jainkoari;
eta bere obedientziarengatik entzuna izan zen.
- 8** Semea izanik ere,
Pasioneko oinazeen bidez ikasi zuen obeditzen.
- 9** Horrela, bere beterat heldu-eta,
betiko salbamenduaren iturri bilakatu da
obeditzen dioten guzientzat.

Gutun hau judueri mintzo mintzo zaiote. Jeremi profetak aipatu Batasun berria, (ikus gorago) Jesus baitan bete da, Jesus osoki Jainko eta osoki gizon baita. Gizon-Jainkoak bere baitan jainkoa eta gizakia elgarr lotu ditu. Osoki gizon zelakotz Jesusek sofritu du eta beldurrak hartu du heriotzearen aitzinean. “*Deiadar handiz eta nigarrez egin zion otoitz eta galde Jainkoari*” “*Eta bere obedientziarengatik entzuna izan zen*” dio Paulok. Entzuna ? Ez ote zuen hil behar?

Idazleak diolarik Jesus entzuna izan zela, hau du erran nahi: Aitaren nahia onartu zuela konfiantza osoan, eta hola zuela Jesusek munduari salbamendua ekarri.

Salbamendua zer da ? Jainkoa ezagutzea, den bezala, eta amodioak biziarazten gaituela! Kristori obeditzea, hori da, gure sofrikario guzien erditik Jesusi konfiantza egitea, eta haren bidez Aitari. Konfientzia egitea, sinestea da Jainkoak gure zoriona duela oroz gainetik nahi, gure bizian gertatua gertatu.

“Otoitz egizue tentazionean ez erortzeko” otoitz egitea zer da ? Otoitz egitea Jainkoarekin har-emanetan egoiteko, Hari konfientzia eginez. “Egin bedi zure nahia“, ez nerea. Badakit hori nere onetan dela.

Ebanjelioa

Jesu Kristo, guri mintza, argi gure bihotza !

Gizonaren Semea, gurutzean altxatua,

Zure bitartez daukate denek bizia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 12, 20-33

- 20 Bazkokari Jainkoaren adoratzera Jerusalemerat igan zirenen artean baziren Greziar batzu.**
- 21 Galilea Betzaidako Filiperen ganat hurbildu ziren, eta galde hau egin zioten:
“Jauna, Jesus ikusi nahi ginuke.”**
- 22 Filipe Andrerri erraitera joan zen, eta biek Jesusi erran zioten.**
- 23 Orduan Jesusek ihardetsi zioten:
“Etorria da Gizonaren Semearen aintza agertuko den ordua.**
- 24 Egiaz egiaz diozuet: ogi-bihia lurrerat erori eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da;
bainan hiltzen bada, fruitu ainitz emaiten du.**
- 25 Bere bizia maite duenak galduko du;
bainan mundu huntan bere biziari atxikia ez denak betiko bizirako begiratuko du.**
- 26 Nere zerbitzaria izan nahi duena jarraik bekit;
eta ni non naizen, han izanen da nere zerbitzaria ere.
Nere zerbitzari dena, nere Aitak ohoratuko du.**
- 27 Durduzatua dut orai barnea. Eta zer erran?
Aita, atera nezazu oren huntarik?
Bainan ez! Hain zuzen, oren huntarako etorria naiz!**
- 28 Aita, ager zazu zure izenaren aintza!”
Orduan mintzo bat zerutik etorri zen :
“ Aintza agertu dut eta berriz ere agertuko.”**
- 29 Han zagon jendeak, mintzoa entzunik, ihurtzuria zela zion;
beste batzuek, berriz, zioten: “Aingeru bat mintzatu zaio.”**
- 30 Bainan Jesusek ihardetsi zioten:
“ Mintzo hori ez zen neretzat, bainan zuentzat.**
- 31 Orai jujatua izanen da mundu hau:
orai kanporat botatua mundu hunen buruzagia;**
- 32 eta nik, lurretik altxatuko nautenean,
denak nereganat erakarriko ditut.”**
- 33 Hitz hauen bidez, nolako heriotzez hilen zen adiarazten zuen.**

“Etorria da Gizonaren Semearen aintza agertuko den ordua”, erran nahi baita Jainko bezala agertuko den ordua. Aintza hitza behin baino gehiagotan erabilia da testu huntan. Erran nahi du: ager zaite maitasunezko Jainko bezala, Aita bezala.. Hainbertze ideia makur badugu Jainkoaz. Erakusteko noradino doan Jainkoaren amodio hori, Jesusek kurutzea onartu du.

Ondotik huna Jesusen garaipena. “Orai kanporat (botaia) da mundu hunen buruzagia...Eta nik, lurretik altxatuko nautenean, denak nere ganat erakarriko ditut, Aintza agertu dut eta berriz ere

agertuko...mintzo hori ez zen neretzat bainan zuentzat” zuen Jesusek ihardetsi. Bai, zuentzat, ikus dezazuen noradino doan nere neurrigabeko maitasuna...